

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarriak

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

“Zubilarra eta Fontecha urez hornitzeko depositu berria egiteko eta goi sarea berritzeko proiektua”k eragindako ondasun eta eskubideak behin betiko onartzea eta apaitutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko aktak, okupazio aktak eta balio justua ezartzearen aktak egiteko egintzara

Foru Gobernu Kontseiluak, 2019ko urriaren 29an egindako bilkuran, 684/2019 Erabakia onartu du. Hona hemen horren testua:

“Larrazubiko eta Fontechako hornidurarako biltegi berriaren eta altueran kokatutako sarearen proiektua” jendaurreko informazio aldiari aurkeztutako alegazioei erantzutea. Desjabetzeak eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda onestea. Okupatzeko beharra aitortzea. Presako prozedura. Kreditua atxikitzea.

Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 26ko 149/2019 Erabakiaren bidez, behin betiko onetsi zen “Larrazubiko eta Fontechako hornidurarako biltegi berriaren eta altueran kokatutako sarearen proiektua”, eta hasierako onespina eman zitzaion proiektu horrek eragindako ondasun eta eskubideak banan-banan eta modu zehaztuan jasotzen dituen zerrendari, eta jendaurrean jarri zen.

Jendaurrean egon den aldiari alegazio teknikoaren hiru idazki aurkeztu dira, 2/000, 13/000, 22/000 eta 23/000 finkei dagokienez, eta Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak aipatutako idazki horiek aztertu eta haien gaineko txostenak egin ditu. Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak onartu egin ditu txosten horiek, eta Foru Gobernu Kontseilu honek bere egin ditu. Txosten horiek dira erabaki honen oinarria eta arrazoiketa, eta alegazio egileei igorriko zaizkie, aurkeztutako alegazioak baietsi edo ezetsi izana arrazoitzeko.

Alegazioei erantzunda, proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda behin betiko onetsi behar da, zeina taxutu baita kontuan izanda jendaurreko informazio aldiari baietsi diren eta hasieran onetsitako zerrenda aldatzen duten alegazioak; horrez gain, ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratu beharra aitortu behar da, desjabetu eta aldi batez okupatzeko, eta zortasunak ezarri, aldatu edo amaitzeko.

Abenduaren 23ko 3376/1971 Dekretuaren artikulua bakarrez xedatzen da ezen herriak hornitzeko urak edateko gai bihurtzeko obrak presakotzat aitortuko direla, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikulua onorioetarako. Hori dela eta, ulertzen da proiektu honek dakarren jardunak berekin dakarrela okupatzeko premia, eta desjabetze espedientea Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen xedatutako presako prozeduraren bidez izapidetu ahal da.

Arabako Foru Aldundiak eskumena dauka proiektuaren xede den herrilana proiektatu eta gauzatzeko, Toki Araubidearen Oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36. artikuluan eta Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege xedapenen testu bateratua onesten duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 30.1 eta 6.e) artikuluetan xedatutakoaren ondorioz. Eskumen horiek baliatzeko, Foru Aldundiak desjabetu beharreko ondasun eta eskubideak desjabetu ahal izango ditu, halaxe xedatzen baitu Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legeak 2.1 artikuluan.

Proiektuek berekin dakartenean onura publikoaren aitorpena egin beharra desjabetzeak gauzatzeko eta desjabetzeak eragindako eskubide eta ondasunen behin betiko zerrendak egiteko, erakunde honen barnean, Foru Gobernu Kontseilua da proiektuak onesteko eskumena

duen organoa, hala xedatzen baitute Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.26) artikuluan eta Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak laugarren xedapen gehigarrian.

Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak emandako txostena aztertu da, non behar den kreditua badagoela jaso den.

Horregatik, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko eta Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuen proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren,

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. "Larrazubiko eta Fontechako hornidurarako biltegi berriaren eta altueran kokatutako sarearen proiektua" jendaurreko informazio aldian aurkeztutako alegazioei erantzutea, eta Ingurumen Kalitatearen zerbitzuak emandako txostenen arabera baiestea edo ezestea.

Bigarrena. Behin betiko onestea eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda, honekin batera doan eranskinean jasorikoa.

Hirugarrena. Ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko beharra aitortzea, desjabetu, aldi batez okupatu eta zortasunak ezarri, aldatu edo amaitzeko.

Laugarrena. Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan araututako presako prozeduraz izapidetzea desjabetze espedientea.

Bosgarrena. 60.420,64 euro esleitzea, Arabako Foru Aldundiaren 2019ra luzatutako 2018ko aurrekontuko "Desjabetze hidraulikoak" izeneko 50106.5300.6000004 partidaren kontura (xedapen erreferentzia: 105-4692/000.19.5.19), eragindako ondasun eta eskubideen balio justua dela eta ordaindu beharreko zenbatekoei aurre egiteko.

Seigarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak eranskinean jasotzen diren finkei dagokien balio justuaren zenbatekoa ordain dezala, Desjabetzeen Atalaren buruak balio justua ordaintzeko proposamen txostena aurkeztu eta gero. Ordainketa hori lehen aipatutako xedapenaren lerro eta erreferentziaren kontura egingo da, legeak ezarritako epean.

Zazpigarrena. Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuari ahalmena ematea, proiektu hau gauzatzeko beharrezkoak diren azalera handitzeak eta aldaketak egin ahal izan ditzan, kontuan izanda zein muga ezartzen duen Arabako Lurralde Historikoko 2018rako aurrekontua gauzatzeari buruzko abenduaren 22ko 21/2017 Foru Arauak 16.1.a) artikuluan."

Horren berri ematen da interesdunak jakinaren gainean jartzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, eta jakinarazten da egintza honek administrazio bideari amaiera ematen diola, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, nahi izanez gero, lehenago berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio egintza hau agindu duen erakunde berari. Horretarako, hilabete izango da aurkatutako egintza argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala eginez gero, ezingo da aurkeztu administrazioarekiko auzi errekurtsorik, harik eta aurkeztutako berraztertze errekurtsioaz ebazpen espresa eman edo ustezko ezespina gertatu arte (Urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. eta 124. artikulua).

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Lantaróngo (Komunioi) Udaletxetako lokaletan ager daitezen, bertan jasotako egunean eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzegatik kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskeiniz.

Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legezko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urriaren 30a

Bide Azpiegituren zuzendaria
CARLOS IBARLUCEA MARTÍNEZ

ZUBILARRA ETA FONTECHA UREZ HORNITZIO DIFERENTZIAL BERRIA EGITEKO ETAGOS SAREA BERRITZETZEO PROIEKTUA
 PROYECTO DE NUEVO DEPÓSITO Y RENOVACIÓN DE RED EN LA LÍNEA PARA ABASTECIMIENTO DE PUENTEARRA Y FONTECHA

Esp./Espan. 2019/2

FINAREN ZK.	Nº FINCA	TITULARAREN IZENA	KATASITRIKO DATUA		UDALERIA	APROBETAMENDUA	ERAGINDAKO ONDASUNA	BEHINBE TRUA		ERAGINDAKO AZALERA		EGUNA	ORDUA
			POLEGONO	LURZATIA				DEFINITIVA	TEMPORAL	ALDI BATERAKO UHESBERIA S.M.	ZORITASUNA UHESBERIA S.M.		
			DATOS CATASTRALES		TERMINO MUNICIPAL	APROVECHAMIENTO	BIEN AFECTADO					ORDIA	
			PARCELA									HORA	
3/000		FERNANDEZ DE PNEDO, MORAL, ANTONIO	3	14,56	LANTARON	LEHORREKO LABORANTZA LURRA / TERRA DE LABOR SECANO		19	3.600	1.167	25/11/19	10:00	
5/000		MARTINEZ, ALONSO, LUIS MABA	3	571	LANTARON	BARATZEA / HERIETA		9	609	260	25/11/19	10:45	
7/000		GARONA, BARROK, PUJIFICACION YARBITU, GARONA, JESUS	3	573	LANTARON	LEHORREKO LABORANTZA LURRA / TERRA DE LABOR SECANO		9	5.544	1.935	25/11/19	12:00	
8/000		GARONA, BARROK, PUJIFICACION YARBITU, GARONA, JESUS	3	574	LANTARON	LEHORREKO LABORANTZA LURRA / TERRA DE LABOR SECANO			1.018	318	25/11/19	12:00	
9/000		GARONA, BARROK, PUJIFICACION YARBITU, GARONA, JESUS	3	575	LANTARON	LEHORREKO LABORANTZA LURRA / TERRA DE LABOR SECANO			1.017	318	25/11/19	12:00	
10/000		LARINTE, MARTINEZ, ANHIDA	3	576	LANTARON	LEHORREKO LABORANTZA LURRA / TERRA DE LABOR SECANO		9	1.274	392	25/11/19	13:00	
14/000		SALAZAR, ANSOTEGUI, JESUS MARIANO	3	585	LANTARON	LABORRE LURZATUA / TERRA DE LABOR			1.811	392	26/11/19	10:00	
19/000		SALAZAR, ORTIZ DE ZAMATE, EUGENIO	3	736	LANTARON	LEHORREKO LABORANTZA LURRA / TERRA DE LABOR SECANO			1.620	506	26/11/19	10:45	
24/000		GOMEZ, RESINES, ENRIQUE	3	741	LANTARON	LABORRE LURZATUA / TERRA DE LABOR		22	2.532	810	26/11/19	12:00	
26/000		REURFO S.L.	3	1468	LANTARON	ETEA / ERVAL			1.099	386	26/11/19	12:45	
27/000		REURFO S.L.	3	742	LANTARON	ETEA / ERVAL		1.836,91			26/11/19	12:45	
6/000		VARONA, EDHANOVE, J. JAVIER	3	572	LANTARON	LEHORREKO LABORANTZA LURRA / TERRA DE LABOR SECANO		15	2.192	916	26/11/19	13:30	
25/000		MONTOYA, MIREKA, M. CORBIN ASATEGUI, MONTOYA, ANTONIO	3	742	LANTARON	LABORRE LURZATUA / TERRA DE LABOR			2.503	650	27/11/19	10:00	
13/000		ASATEGUI, MONTOYA, JOSE ASATEGUI, BORDOZA, BERGABITA	3	560	LANTARON	LABORRE LURZATUA / TERRA DE LABOR			1.096	275	27/11/19	10:45	
1/000		ANGULO, GONZALEZ, JUAN PABLO	2	1461	LANTARON	LEHORREKO LABORANTZA LURRA / TERRA DE LABOR SECANO		22	3.021	938	27/11/19	12:00	
20/000		ANGULO, GONZALEZ, M. JOSEFA	3	737	LANTARON	LABORRE LURZATUA / TERRA DE LABOR			1.079	337	27/11/19	12:45	
21/000		ORTIZ, GARCIA, MIGUEL	3	738	LANTARON	LEHORREKO LABORANTZA LURRA / TERRA DE LABOR SECANO			1.014	317	27/11/19	12:45	
16/000		ORTIZ, GARCIA, GERMAN	3	728	LANTARON	LABORRE LURZATUA / TERRA DE LABOR			1.575	492	28/11/19	10:00	
11/000		SAEZ, TURISO, DOMINGO	3	728	LANTARON	LABORRE LURZATUA / TERRA DE LABOR			1.89	4	28/11/19	10:45	
2/000		VILLANIEVA, LANDAZURI, ORLLO WRES, NEZEL, BORDO	3	577	LANTARON	LEHORREKO LABORANTZA LURRA / TERRA DE LABOR SECANO			615	192	28/11/19	12:00	
22/000		HEREDEROS DE LANDABURI, LETE, M. ESTHER	2	747	LANTARON	BARATZEA / HERIETA			768	235	28/11/19	12:45	
23/000		BELTRAN SALAZAR, ANSOTEGUI, LUIS ANGEL	3	739	LANTARON	LEHORREKO LABORANTZA LURRA / TERRA DE LABOR SECANO		9	1.599	499	28/11/19	12:45	
4/000		BELTRAN SALAZAR, ANSOTEGUI, LUIS ANGEL	3	740	LANTARON	LABORRE LURZATUA / TERRA DE LABOR			394	394	29/11/19	10:00	
12/000		JUNTA ADMINISTRATIVA DE FONTECHA	3	1460	LANTARON	MENDA / MONTE			3.162	921	29/11/19	10:45	
15/000		BAZABAL, LOPEZ DE MATORANA, ALBERTO	3	727	LANTARON	LEHORREKO LABORANTZA LURRA / TERRA DE LABOR SECANO			312	79	29/11/19	12:00	
17/000		BAZABAL, LOPEZ DE MATORANA, INES	3	733	LANTARON	LABORRE LURZATUA / TERRA DE LABOR		9	7.370	2.049	29/11/19	12:45	
18/000		FERNANDEZ DE PNEDO, VALMASEDA, EDUARDO	3	735	LANTARON	LABORRE LURZATUA / TERRA DE LABOR			2.863	707	29/11/19	12:45	